

IRAGARKIA

75. ALDIZKARIA - 2012ko apirilaren 20a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK UHARTE

Aldi baterako kontratazioak kudeatzeko arauak

Aurrekariak

Ikusten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onetsi dituela administrazio horretan lanpostuak aldi baterako betetzeko kudeaketarako arauak, administrazio horretako langileei aplikatzen ahal zaizkienak, eta Uharteko Udalean aplikatzeko egokitzat hartzen direnak.

Kontuan hartuta puntu batzuk Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagozkiola, horien ordeztuak beste batzuk jarri dira, Udalaren ezaugarrietara egokituak.

Kontuan hartuta Langileen Batzorde Paritarioak aldeko txostena egin duela 2012ko otsailaren 29an.

Zuzenbideko oinarriak

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22-i artikuluan xedatuari jarraikiz, honako hau onetsi da:

ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUDUNAK HAUTATZEKO ARAUAK

Foru Administrazioako sindikatuak kontratazio zerrenden kudeaketaren inguruan sinatutako hitzarmena aplikatuko da (814/2010 Foru Agindua, abenduaren 31koa; 2011ko 31. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 15ean). Salbuespen hauek egin beharko dira:

6.1, 7.2, 8.3, 9.2, 11.8 eta 12.1 a), b) eta c) artikulua honelaxe geldituko dira idatzirik:

6. artikulua. Sartzeko hautapen prozesuetan proba guztiak gainditzen ez dituzten izangaien zerrendak.

1. Aldi baterako kontratatze izangaien zerrendan sartuko dira, lehen proba gaindituta, hautaprobetan ezarritako gehieneko puntuazioaren gutxienez %30 lortzen duten izangaiak, euskaraz jakitea baloratzen duen proba izan ezik.

7. artikulua. Hautaprobetarako deialdi publikoaren bidez osatzen diren izangai zerrendak.

2. Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendan sartuko dira, lehen proba gaindituta, hautaprobetan ezarritako gehieneko puntuazioaren gutxienez %30 lortzen duten izangaiak, euskaraz jakitea baloratzen duen proba izan ezik.

8. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak deitutako hautaprobek bidez osatzen diren izangai zerrendak.

3. Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendan sartuko dira, lehen proba gaindituta, hautaprobetan ezarritako gehieneko puntuazioaren gutxienez %30 lortzen duten izangaiak, euskaraz jakitea baloratzen duen proba izan ezik.

9. artikulua. Izangaien zerrendetako lehentasun hurrenkera finkatzeko araubide orokorraren salbuespenak.

2. Aldi baterako kontratatzeko zerrendetan dauden 55 urtetik gorako izangaiek, Uharteko Udalean 15 urteko edo gehiagoko zerbitzualdia egina dutenek, lehentasuna izanen dute sartuta dauden zerrendetatik deituak izateko, salbu eta 1. idatz-zatian aipatutako egoeran dauden izangaien aldean.

11. artikulua. Deiak egiteko arau orokorrak.

8. puntua kentzea, honela dio: "kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko, non eta deia maila edo kategoria altuagoko lanpostu bateko zerrendatik egiten ez zaien."

12. artikulua. Deietarako lehentasun berezia

Deietarako orokorrean ezarritakoa deusetan ukitu gabe, izangai bat aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu batean aritzen edo aritu bada eta, kontratu hori bukatu eta hurrengo urteko epearen barruan, lanpostu berdina aldi baterako betetzea baimentzen bada, Administrazioak izangai berari eskainiko dio kontratua (zerrendetako hurrenkerak lehentasuna markatuko du), betiere dei egiten zaion unean baldintza hauek betetzen badira:

a) Horrelako lanpostuak prestakuntzarako zerbitzu berezietan betetzeko zerrendan deitzeko moduko izangairik ez egotea.

b) Deia egiten den unean indarra duen zerrenda batean egotea izangaia.

c) Aurreko kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

Uharten, 2012ko martxoaren 13an.-Alkatea, Iñaki Crespo San José.

Iragarkiaren kodea: L1204557